

Getxo >MEETING<



Abenduak 12 Urtearen errepassoa

Abenduaren 12an, 2024a ixteko saio berezia egin genuen.

Ekintzaile, autonomo eta negozio txikiei zuzendutako gure “enpresako bazkaria” antolatu dugu jada. Garrantzitsua da lorpenak errepassatzea eta aurrerapen txiki nahiz handiak ospatzea.

Izan ere, azken Getxomeeting saioaren helburua urtea gogora ekartzea zen.

Horretarako, jada ez baduzu egin, honako urrats hauek egitea gomendatzen dizugu: hausnartu eta zure enpresa-urtekari propioa sortu.

1. Ekintzaile gisa dituzun lorpenei buruz hausnartu:

Zeintzuk dira aurten gainditu dituzun erronkak? Hausnartu ezazu hartu zenituen erabaki garrantzitsuei buruz, garatu zenituen gaitasunei buruz eta desberdintasuna ezarri zuten irakaspenei buruz. Identifikatu itzazu profesional gisa haztea ahalbidetu dizuten une gogoangarriak.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/es/promocion-economica/>

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:



2. Posizionamenduari dagokionez zure enpresak izandako lorpenak:

Zure markaren gaineko pertzepzioa aldatu al duzu merkatuan? Aztertu ezazu ea ikusgarritasuna, ospea edo agintaritza hobetu ote dituzun zure sektorean.

3. Ebaluatu itzazu merkataritzari eta marketinari dagokienez egindako aurrerapenak:

Zure salmenten helburuak lortu al dituzu? Hausnartu ezazu ondoen funtzionatu zuten estrategiei buruz, oihartzunik handiena sortu zuten bideei buruz eta harrera onena izan zuten produktu edo zerbitzuei buruz.

4. Aurten giltzarri izan diren zure sareak eta lankidetzak:

Zeintzuk dira sortu edo sendotu dituzun loturak? Hausnartu ezazu aurten giltzarri izan diren bezero berriei, aliatuei, erakunde laguntzaileei eta mentoreei buruz.

5. Identifikatu itzazu funtsezkoak izan diren irakaspenak:

Arrakastak irakasgai dira, baina baita akatsak ere. Zeintzuk dira aurten zerbait garrantzitsua irakatsi dizuten bizipenak?

Gogoan izan ariketa hau baliagarria izan dadin denboraz eta zintzotasunez egin behar duzula. Zure lorpenen isla ez ezik, zure urtekaria aurrera egiten jarraitzeko iparrorratza ere izango da.

Getxomeetingen egon bazinen, espero dugu emandako gakoak lagungarri izatea hasitako gogoetetan sakontzeko. Ezin izan bazinen joan, oraintxe duzu aukera paregabea ariketa zure kontu egiteko eta hurrengo urtea argitasunez eta motibazioz hasteko.

Bide batez, zorionak 2024an lortu eta ikasi duzun guztiagatik!

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/es/promocion-economica/>

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:

